

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

LEHENDAKARITZA

493

*EBAZPENA, 2021eko urtarrilaren 26koa, Lehendakaritzako idazkari nagusiarena, Lehendakari-
tzako behin-behineko langile bat kargutik kentzeko dena.*

Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 28. artikuluan eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 96.2 artikuluan ematen zaizkidan ahalmenak erabiliz, ondoren zehazten den kargutik kentzea formalizatzen dut, eta hau:

XEDATZEN DUT:

Lehenengoa.– Cristina Uriarte Toledo andrea lehendakariaren aholkulari kargutik kentzea (kodea: 5210; dotazioa: 2; maila: sailburuordea, Lehendakaritzan).

Bigarrena.– Kargutik kentzeak 2021eko urtarrilaren 29tik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Administrazio-bidea amaitzen duen agindu honen aurka aukerako berraztertze-
errekurtsoa aurkez dakioke organo honi, hilabeteko epean, edo administrazioarekiko auzi-erre-
kurtsoa aurkez daiteke administrazioarekiko auzien epaitegian, bi hilabeteko epean, bi kasuetan
agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko urtarrilaren 26a.

Lehendakaritzako idazkari nagusia,
JESÚS MARÍA PEÑA MARTÍNEZ.